

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Irabazteko xederik gabeko elkarte soziokulturalentzako 2026rako dirulaguntzen deialdiaren oinarriak

BDNS (Identif.): 924762.

Bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/924762>.

Xedea

Deialdi honen xedea da elkarteek udalerriaren esparruan sustatutako jarduera soziokulturalak edo udalerriko interesgarriak izan daitezkeen eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontuaren mugen barruan.

Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarteak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kultura elkarteek proposatutako kultura programen barruko jardueren antolaketatik sortutako gastuak, haiek kokatuta dauden udalerri edo populazioari bideratuta badaude eta 2026. urtean garatu beharreko egutegi zehatza badaukate.

Balioespen irizpideak

- Proiektuaren kalitatea.
- Proposamenaren bideragarritasuna.
- Euskararen zabalkundeari egiten zaion ekarpena.
- Beste erakunde batzuei eskaera egin izana egiaztatzea.
- Berdintasuna eta gizarteratzea sustatzea.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diruz lagunduko den gehienezko kopurua aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 80 izango da.

Eskaerak eta agiriak

Dirulaguntzak lortu nahi dituzten elkarteek eredu formalizatuan aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Legutioko Udalaren egoitza elektronikoan (www.legutio.eus).

Legutio, 2026ko abuztuaren 12a

Alkatea

NEREA BENGÓA GARCÍA DE CORTÁZAR